

turia XV, resultará muy mermada la importancia de las huestes acaudilladas por los gamboinos y oñacinos, y novelesca la matanza de 3.000, correspondientes al bando vecino, á cuya cifra le sobrar  cuando m enos un cero para llegar   ser veros mil. Si con los perfeccionamientos de la artilleria de tiro r pido, de las ametralladoras y del Ma sser, el n mero de los heridos es en las batallas de nuestros tiempos cinco   seis veces mayor que el de los muertos, puede asegurarse que con las *lombardas* de los sitiadores de Elorrio y el armamento primitivo de la  poca; aquella hecatombe que nos recuerda por su exageraci n la pelea de los perros sevillanos ser a mucho m s modesta, y no dudamos que en los archivos bizcainos podr n encontrar los diligentes investigadores algunos rayos de luz para desvanecer tales patra nas, permiti ndonos recomendar al buen sentido cr tico del se or Echegaray un estudio m s detenido del asunto.

PABLO DE ALZOLA.

(Se continuar )

---

# ONENZARO<sup>1</sup>

— ❖ —  
(DONOSTIA-RI)

Zoragarria, milla aldiz bedeinkatua, Eleizatik eche guztietara, mendietako chaboletatik kaleko jauregietara no, gizonarentzat kantik pozgarrienak, ibai batean bezela, gozoro dakartzkien Gauona!

Ba na  ai!... aurten, zoriona zabaldurik datozen ordu oetan beretan, zenbait eche penaren brumak gorderik dauzka pozaren ibai arren ertzean!  A!... Barrena sarturik... i iltasuna, gurasoak elkarri begiratze-

---

(1) Orain bederatzi urte izkribatu nuen moldaera au, eta beste liburu batean argitaratua izandu zan.

Garai artan, aur asko Zeruratu ziran gure Donostiatik.  N rk ez daki Zeruak izar geiago dauzkala geroztik! (Egillearen adirakia).

ko bildurrak negarrez lertzeko zorian, amari jaiotzen zaion zizpurua, aitari dijoakion antsia, aiton-amonen azken malkoak, eta, batez ere, jostalluak armarioan jasorik ikusten ditudanean, naigabeak erotzen nau. ¡O Donostia! ¿non dituzu aurrak? ¿Non dira gureztat ayen festak, ayen kontuak, ayen farrak, ayen musucho eta laztanak? Guztia dago iñill! ... ¡iñill! ¡Etzaute bakarrik negarrez, gurasoak, lotsikan gabe aitortutzen det ni ere ala nagola! ¡O Jaungoikoa! kastiga gaitzatu naitzun bezela, baña jarren! ez gaitzazulaaurrak gabe utzi, ez? Lurra aurrirrikan gabe, Zerua aingerurik gabe bezela litzake!

Oraindik gauba da; pozaren ibai ura azitzen dator, bazter guztiak estali nairik; bakarrik entzuten da ¡Jesus jaio du Belenen! Ateratzen naiz leiora egun berriaren billa bezela, begiratzen det Zerura, burua erortzen zait bi eskuen artera, iñten zaizkit begiak, eta orduan ¿zér ikusten det? ¡O! .... Joan dan udazkenean Donostiatik Zerura egatutako aur guztiak izarrez jantzitako odei batean datoz Belengo portalera Jesus adoratzerara. ¡Zér edertasun paregabia! Gaur urte bete, gure echeetan, kartoiezko jostalluakiñ Jesus-ekin jostatzen zeuden aurrak, Jesus berberarekiñ jostatzen arkitzen dira gaur. Zorionekoak berak eta gu. ¡Negar, negar gurasoak! ez penaz, baizik pozez. ¡Aur maiteak! .... joan dan udako loreak ill ziran; baña zuek ez. ¿Non da anima bat bezelako Sortitzik?

¡Jesus jaio da Belenen! ¡O! ... Ez gaitzela kontentatu Zerutik datorzkgun konsuelozko malkoak iñurtzearekiñ; igo zagun poza Zeruraño: gelditzen zaizkgun aurrak eraman ditzagun, ez oñetako, ez soñ, ez zer janik gabe, arkitzen diran aur pobreengana. An adoratuko dute ¡Jesus!; an, aurrak aurrari begiratzean, batzuek kupidaz, besteak eskertasunez, denak inozenziaren soñeko churiz apaiñdurik, beren senide aingeruchoak egingo duten far-irri batek Zeru osoa pozaren pozez beteko du, ta Zeru-Lurrak, batera, kantatuko dute:

*Gloria in excelsis Deo,  
et in terra pax hominibus bonæ voluntatis.*

ANTONIO ARZÁC.

1886-an.

